

Sailkapena

Kanporaketa izaerakoa izango da. Lehiakideek 12 x 12 lauki dituen hitz gurutzatu taula beteko dute 45 minutuko epean.

Proba honetatik aurreneko lau postuetan geratutako lehiakideak sailkatuko dira finalerako. Jarritako denboran akasduen lauki gutxien dutenak igaroko dira finalera. Akats kopuruan berdinketa balego, denbora hartuko da kontuan.


Finala

Agerian eta jendaurrean jokatu dute finala, hartara iritsi diren lau lehiakideek.

Ez dira mahaian ariko, zutik jarritako paneletan baizik. Edonola ere, panelok bata bestearena ez ikusteko moduan kokatu dira. Inguruan ibili ahal izango da publikoa panelez panel, finalak eskatzen duen isiltasunari begirune eginez. Lehiakideek 12 x 15 lauki dituen hitz gurutzatu taula beteko dute, jakinik horretarako gehienez 45 minutuko epea dutela. Kasu honetan ere akasduen lauki gutxien dutenak izango dira irabazle eta akats kopuruan berdinketa balego, denbora hartuko da kontuan.

EPAIMAHAIA

Antolatzaileek txapelketako epaimahai bat izendatuko dute eta epaimahai horrek erabakiko ditu txapelketan zehar suerta litezkeen gorabeherak.



Hitz Gurutzatuen binakako lehiaketak



Bergaran, abenduaren 3an

PARTAIDEAK ETA KATEGORIAK

Lehiaketa bikoteka jokatu da eta bertan parte hartu ahal izango dute Bergaran bizi edota ikasten ari diren guztiek.

Bi kategoria bereiziko dira:

- A kategoria: 12-16 urte bitartekoak. Hemen sartuko dira 2011n adin horiek betetzen dituztenak ere.
- B kategoria: 17 urtekoak edo zaharragoak.

Kategoria desberdineko kidez osatutako bikoteak ere onartuko dira eta horien kasuan, partaide zaharrenaren kategoriakoak direla ulertuko da.

IZEN-EMATEA

Partehartzaileek 2011ko azaroaren 29a baino lehen eman beharko dute izena Udaleko Euskara Zerbitzuan e-postaz, webgune bidez edo telefonoz:

- Telefonoa: 943779166
- e-posta: euskara@bergara.net
- Webgunea: www.bergarakoeuskara.net

Eta datu hauek eman beharko dira:

Partaide 1:.....	Adina:.....
Partaide 2:.....	Adina:.....
Harremanetarako helbidea:.....	
Harremanetarako e-posta:.....	
Harremanetarako telefonoa	

SARIAK

A KATEGORIA:

- Lehenengoak: 70 euro.
- Bigarrenak: 60 euro.
- Hirugarrenak: 50 euro.
- Laugarrenak: 40 euro.

B KATEGORIA:

- Lehenengoak: 100 euro.
- Bigarrenak: 80 euro.
- Hirugarrenak: 60 euro.
- Laugarrenak: 50 euro.

Partehartzaileen artean zenbait kultur produktu zozketatuko dira.

LEHIAKETA

2011ko abenduaren 3ko goizeko 11:00etarako bilduko dira lehiakide guztiak San Martin plazan eta goizeko 11:30etan hasiko da saioa. Ez da hiztegi elektronikorik, ez eta ordenagailurik onartuko, bai ordea hiztegi-liburuak.

Bi aldi izango dituzte lehiaketek: sailkapena eta finala, eta honela banatuko dira ordutegian:

- 11:30 – 12:15 sailkapena
- 13.00 – 13.45 Finala

Partaide kopuruaren arabera, moldaketarik egin ahal izango da antolaketa honetan.